

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Iratiko bide berdea Udalaz Gaineko Eragina duen Plan Sektoriala izendatu dute

Oinezkoentzako eta txirrindularientzako antzinako trenbidearen ibilbidea berreskuratuko da, Ustarrotz (Eguesibar)-Zangoza zatian

Viernes, 19 de septiembre de 2014

Nafarroako Gobernuak erabaki du Iratiko bide berdea Udalaz Gaineko Eragina duen Plan Sektoriala izendatzea Ustarrotz (Eguesibar)-Zangoza zatian, oinezkoentzat eta txirrindularientzat antzinako trenbidearen ibilbidea berreskuratzeke asmoz.

Proiektua Zangoza, Liedena, Irunberri, Urraulbeiti, Longida, Agoitz, Lizoain, Urrotz eta Eguesibarreko udalerriek sustatu dute, eta ibilbideak 49,35 kilometro ditu. Haren amaieran, bideak Iruñerriko Ibai Parkearekin bat egingo du; parke horren zabaltze-proiektua iragan ekainean aurkeztu zen bi bideak lotu eta jarraipena emateko helburuarekin..

Proiektuak aisialdiko eta kiroletako jarduerak garatzea ekarriko du, bai eta ostalaritza eta landaturismoari lotutako jarduera ekonomikoak ere, kultur eduki handia izateaz gain trenbide historiko bat berreskuratzea dakarrelako.

Ibilbideak dituen 49,35 kilometroetatik, % 90 baino gehiago ibilbide historikoko zatiei dagokie, gaur egun bide publikoak eta landako bideak edo abelbideak direnak, eta gainerako % 10 bide-zati sortu berriak dira.

Zeharkako atala 5,5 metro zabal izango da, 3,5 metroko plataforma batez osatutakoa eta alde bakoitzean 1,5 metroko bi areka izanik. Atal txikiagoak barneratzen dira bide berdeak jadanik badiren bide, errepide, zubi edo tunelekin bat egiten duten zatietan.

Une horretatik aurrera, alegazioak egiteko aldia irekitzen da eta proiektua Lurralde Antolatze Batzordera (LAB) itzuliko da, han izapideak aurrera egin dezan.

Iratiko antzinako trenbidearen ibilbidea

Iratiko trenbideak (Iruña-Agoitz-Zangoza)"El Irati" sozietatean du jatorria, 1906an sortu zena Iratiko basoaren aberastasuna ustiatzeko asmoz eta egurra Agoitzetik Iruñera garraiatzeko. Ondoren, hasierako proiektua bigarren adar batera zabaldu zen, Irunberritik Zangozaraino; hala, inguru horretako komunikabideak hobetu ziren.

Espainiako bidaiarientzako lehen tren elektrikoa izan zuen trenbide hori 1911ko apirilaren 23an abian jarri zen eta, 44 urtez martxan izan ondoren, 1955eko abenduaren 31n eman zuen azken zerbitzua.

Hasierako zatian, ibilbideak Eguesibar, Lizoain, Urrotz, Longida, Agoitz eta Urraulgoitiko udal-mugarteak zeharkatzen ditu, eta NA-150,

Iruña-Agoitz-Irunberri errepidearen albotik doa. Azken udalerrri hori eta Pirinioetako Autobia (A-21) zeharkatu ondoren, bideak NA-127, Zangoza-Sos del Rey Católicoren albotik jarraitzen du, Zangoza iparraldean amaitzen den arte, Aragon ibaiaren beste aldean, Santiago bidearen ondoan. Longidan, Ausetik hurbil dagoen araztegi berriaren inguruan, bidea adarkatu eta beste NA-2356 eta Irati ibaiaren arteko beste adar bat sortzen da, Agoitzen amaitzeko.

Ibilbidea Europar Batasuneko [Eurovelo Proiektu](#)aren barnean dago; haren helburua da bizikletaz ibilbide luzeak egiteko Europaz gairikiko sare bat sortzea da, kontinentea zeharkatuko duena.